



ETXEBIZITZAKO  
BEHATOKIA  
OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

Euskadiko etxebizitzaren arloko  
PFEZren zerga-gastua.  
2019 eta 2020.

Bilakaera eta irismena



## Aurkibidea

1. Euskadiko etxebizitzaren arloko zerga-gastuak PFEZn izan duen bilakaera 4
2. Etxebizitzarekin lotutako kenkaria duen aitortpen-kopuruaren bilakaera eta eragina, diru-sarreraren arabera 10
3. Ondorioak 17



## Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.....	Etxebizitza-arloko zerga-gastua, kenkari-motaren arabera. 2019 eta 2020	4
2. grafikoa.....	Etxebizitza-arloko kenkariak PFEZn eragindako zerga-gastua. 2011-2020	5
3. grafikoa.....	Etxebizitza-arloko kenkariak PFEZn eragindako zerga-gastuaren aldaketa-tasak. 2018-2020	6
4. grafikoa..	Etxebizitza-arloko kenkariak PFEZn eragindako zerga-gastua, lurralde historikoka. 2019-2020	7
5. grafikoa.....	Alokairuagatiko vs erosketa/birgaitzeagatiko kenkariaren EAEko zerga-gastuaren pisu erlatiboa. 2011-2020	8
6. grafikoa..	Euskadin eta lurralde historiko bakoitzean sinatutako hipoteken kopuruaren bilakaera. 2003-2020	9
7. grafikoa.....	PFEZn kenkaria duten etxebizitzaren arloko aitortzenen kopurua. 2011-2020	10
8. grafikoa..	PFEZn etxebizitza-arloko kenkariak dituzten aitortzenen kopuruaren aldaketa-tasak, lurralde historikoka. 2011-2020	11
9. grafikoa..	PFEZn etxebizitzaren arloko kenkariren bat aplikatu zitzaizen aitortzenen banaketa, kenkari-motaren arabera. 2020	12
10. grafikoa...	Ohiko etxebizitzagatiko kenkaria dagokien aitortzenen pisu erlatiboa, kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020	13
11. grafikoa....	Ohiko etxebizitzagatiko kenkaria dagokien aitortzenen pisu erlatiboa (eurotan), kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020	13
12. grafikoa....	Aitortzaile-kopuruaren banaketa (pisu erlatiboa), Euskadiko kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020	14
13. grafikoa.....	Aitortpen bakoitzeko kenkariaren batez besteko zenbatekoa, kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020	16



# 1. Euskadiko etxebizitzaren arloko zerga-gastuak PFEZn izan duen bilakaera


2020an, 312 milioi eurokoa izan zen etxebizitza-erosketen kenkariari zegokien PFEZren zerga-gastua, etxebizitza-kontuko kenkariena ere barne zela, alokairuari zegokiona baino hiru aldiz handiagoa eta birgaitze-lanei zegokiena baino 18 aldiz handiagoa.

Erosketa sustatzera bideratzen da, oraindik ere, etxebizitzaren arloko zerga-gastuaren zatirik handiena

Etxebizitzen erosketa sustatzeko izan zen 2020an Euskadiko etxebizitza-alarreko PFEZren kenkariari zegokien zerga-gastuaren % 72,3, 2019an baino hamarren batzuk txikiagoa eta 2018an baino 1,7 puntu baxuagoa. Gogora dezagun Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan jada ez dela aplikatzen kenkari hori 2013az geroztik.

Alokairuagatiko kenkariaren zerga-gastua, berriz, 102 milioi euro izan zen 2020an (etxebizitza-alarreko zerga-gastu osoaren % 23,7, 2018an baino 1,5 puntu handiagoa). Bestalde, txikia izaten jarraitzen du birgaitze-lanei dagokien zerga-gastua (2020an, 17 milioi euro, zenbateko osoaren % 4).

1. grafikoa. Etxebizitza-arloko zerga-gastua, kenkari-motaren arabera. 2019 eta 2020



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa.


Pandemiaren inpaktuak ez du gutxitu etxebizitzaren alorreko zerga-gastua

2020an, 431 milioi eurokoa izan zen Euskadiko etxebizitza-arloko PFEZren kenkariari zegokien zerga-gastu osoa, 2019an baino % 1,7 handiagoa. Aurreko hamarkadako hirugarren handiena izan zen 2020ko gastua, 2012koaren parekoa ia-ia.




## 2. grafikoa. Etxebizitza-arloko kenkariak PFEZn eragindako zerga-gastua. 2011-2020


### Zerga-gastua, guztira




### Erosketa




### Etxebizitza-kontua



### Alokairua



### Etxebizitza birgaitzea



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa



2020an, 2018ko maila gaintu zuen etxebizitzaren arloko PFEZri dagokion zerga-gastuak lau kenkarietan. 2019ko eta 2020ko zerga-datuek adierazten dutenez, **bere horretan dirau etxebizitzak erosteari dagokion zerga-gastuak**. Are gehiago: **2013ko zerga-ekitaldiaz gerotzik, 2019koa eta 2020koa izan ziren gastu-mailarik handienekoak**.


**Bestalde, goraka jarraitu zuen 2019an eta 2020an alokairu-ordainketari dagokion zerga-gastuak**, eta 100 milioi euroren muga gaintu. Hala, bada, ia bikoiztu egin zuen 2011ko zenbatekoa (59 milioi euro).

**Hazten jarraitzen du alokairuari dagokion zerga-gastuak; etxebizitza erosteari dagokiona, berriz, ez da gutxitzen**

**Etxebizitzaren birgaitzeari dagokion zerga-gastuak, berriz, nabarmen egin zuen gora 2019an (14,2 milioi euro 2018an, 17 milioi 2019an), baina oso txikia izaten jarraitzen du erosketari eta alokairuari dagokienekin alderatuta.**

**3. grafikoa.** Etxebizitza-arloko kenkarietako PFEZn eragindako zerga-gastuaren aldaketatasak. 2018-2020

Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa







**2020an, Bizkaian izan zuen igoerarik handiena etxebizitzari dagokion zerga-gastuak (% 2,6)**, alokairua ordaintzeko zerga-gastuaren eraginez, % 6,4 igo baitzen 2019koarekiko. Halaber, lurralde horretan bakarrik igo zen birgaitze-lanak direla eta PFEZn aplikatzen diren kenkarietako dagokion zerga-gastua.

Aldiz, Gipuzkoan eta Araban gutxiago egin zuen gora etxebizitzaren arloko zerga-gastuak (% 1etik behera). Alokairuari dagokion gastuak eragin zuen -heine handi batean- igoera.

**2020an, Bizkaian izan zuen igoerarik handiena etxebizitzari dagokion zerga-gastuak**

**4. grafikoa.** Etxebizitza-arloko kenkariek PFEZn eragindako zerga-gastua, lurralde historikoka. 2019-2020



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa



Areagotu egin da, 2020an, etxebizitza dela eta PFEZri dagokion zerga-gastua. Gogoan izan nabarmen egin zuela behera 2020an bildutako zenbatekoak, pandemiaren eraginez. Aldiz, ez zuen behera egin kenkari horiek eragindako zerga-gastuak, eta gora egin du haren pisu erlatiboak 2020an<sup>1</sup>: zerga guztien bidez bildutakoaren % 3,1 izan zen urte hartan, PFEZren bidez bildutakoaren % 7,6, eta EAEko BPGd-aren % 0,65.

PFEZren bidez biltzen diren 13 eurotik 1 etxebizitza dela eta aplikatzen diren kenkarien zerga-gastuari dagokio

Bestalde, zenbateko hori artean 405 milioi eurotik gorakoa izan zen 2020an, hots, urte horretan bertan Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egindako gastu osoa baino handiagoa<sup>2</sup>. Eusko Jaurlaritzaren gastua eta inbertsioa alokairu babestua eta birgaitze-lanak sustatzera bideratzen da, baina, aldi berean, pisu handia dute etxebizitza erosteko zerga-pizgarriek.

### 2208ko PFEZko kenkariak etxebizitza dela eta 431 milioi euro

BPGd-aren  
% 0,65

Bildutako guztia  
% 3,1


PFEZren bidez bildutakoaren  
% 7,6

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-alorreko gastua  
x 1,07

2020an, etxebizitza-arloko zerga-gastuaren % 72,3 etxebizitza erosteko kenkariak sortu zuten. Zerga-gastu osoaren % 23,7 izan zen etxebizitzaren alokairuari aplikatzen zaizkion kenkarien zerga-gastua, 2011koa halako bi, azken urteotan alokairuko etxebizitzaren merkatuak izan duen hazkundera dela eta. Etxebizitzaren birgaitzeak, berriz, zerga-gastu osoko 25 eurotik bat bakarrik jaten du.

Etxebizitzaren erosketari sustatzeko erabiltzen dira zerga-gastuko 10 eurotik 7

5. grafikoa. Alokairuagatik vs erosketari/birgaitzeagatik kenkariaren EAEko zerga-gastuaren pisu erlatiboa. 2011-2020



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinazio Organoa

2019an eta 2020an, bere horretan eutsi zion europako Banku Zentralak (EBZ) interes-tasa murriztuko politika monetario hedakorrari; hori dela eta, pizgarriak kendu zizkien hipoteken amortizazioari eta etxebizitza erosteagatik zerga-gastua murrizteari. Bestalde, hazten jarraitu du etxebizitzaren gaineko hipoteken kopuruak –

<sup>1</sup> [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/7119/es\\_2335/adjuntos/2020.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/7119/es_2335/adjuntos/2020.pdf)


<sup>2</sup> Barne hartzen ditu Sailaren gastu bateratua eta Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria.




baita 2020an ere-, eta urteko 19.000 hipoteken kopurua gairatu da, 2012tik izan den handiena.

**5. grafikoa.** Euskadin eta lurralde historiko bakoitzean sinatutako hipoteken kopuruaren bilakaera. 2003-2020


#### Euskadi




#### Araba



#### Bizkaia



#### Gipuzkoa



Iturria: EIN




## 2. Etxebizitzarekin lotutako kenkaria duen aitorkopuruaren bilakaera, eta diru-sarreraren arabera eragina

Hazten jarraitzen du, poliki, ohiko etxebizitza erosteagatik hipotekaren kuoten kenkaria aplikatu zaien aitorkopuruak, zeina 313.000ra iritsi baitzen 2019an eta 2020an (2018an baino % 2 gehiago). 2011tik izan den zifrarik handiena da.

Kontuan izan behar da, dena den, etxebizitza beragatik kenkari berari dagozkiola zenbait aitorkopu. Urte batetik bestera aldatu egin daiteke egoera hori etxebizitza berean, aukera baterako aitorkopu edo banakakoa egitea.

313.000 aitortzaile k lortu zituzten etxebizitza erosteagatik kenkariak 2020an, 2018an baino % 2 gehiagok





7. grafikoa. PFEZn kenkaria duten etxebizitzaren arloko aitorkopuruak. 2011-2020




Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa



**8. grafikoa.** PFEZn etxebizitza-arloko kenkariak dituzten aitortpenen kopuruaren aldaketa-tasak, lurralde historikoka. 2011-2020






Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa

Ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako errentaren kenkaria aplikatzen zaien aitorpenen kopurua, berriz, % 4,2 igo zen 2020an 2019koarekiko, eta ia 100.000 aitorpenera iritsi zen. Beraz, handituz doa aitorpen horien kopurua, 2018an baino 9.000 bat gehiago izan baitziren, eta nolabaiteko kenkaria zuten aitorpen guztien % 22,6.

9. grafikoa. PFEZn etxebizitzaren arloko kenkariren bat aplikatu zitzaizen aitorpenen banaketa, kenkari-motaren arabera. 2020




Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa

Azterketa honetan urterik urte nabarmentzen den emaitza aipagarrienetako bat hau dugu: zerga-oinarri handieneko zergadunen artean, gutxi dira alokairura ordaintzeagatik kenkaria aplikatzen zaien aitorpenak. 30.000 eurotik gorako zerga-oinarria duten aitorpenen artean, etxebizitzagatik kenkariak dituzten zortzi aitorpenetik bati bakarrik aplikatzen zaio alokairuagatik kenkaria.

Zenbat eta handiagoak diru-sarrerak, orduan eta handiago erosketagatik kenkaria aplikatzen zaien aitorpenen kopurua, eta orduan eta txikiago alokairuagatik




**10. grafikoa.** Ohiko etxebizitzagatiko kenkaria dagokien aitortpenen pisu erlatiboa, kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020.



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa

**11. grafikoa.** Ohiko etxebizitzagatiko kenkaria dagokien aitortpenen pisu erlatiboa (eurotan), kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa




Alokairuagatiko kenkaria izan zuten aitortzen % 49k zuten 18.000 eurotik beherako likidazio-oinarria; erosketagatiko kenkaria izan zutenetik, berriz, % 17k, hiru aldiz gutxiagok. Erosketaren kasuan, birgaitzeari dagozkion aitortzenak ere sartzen dira datu horietan, baina oso txikia da haien kopurua.


Alokairua ordaintzeagatik kenkaria aplikatzen zaien aitortzaileen erdien diru-sarrerara 18.000 eurotik beherakoa da, hots, erosketagatik aplikatzen zaienen kopurua halako hiru dira kopuru horretatik behera irabazten duten maizterrak

**12. grafikoa.** Aitortzaile-kopuruaren banaketa (pisu erlatiboa), Euskadiko kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020


**ALOKAIRUA**



**EROSKETA**



**ETXEBIZITZA-KONTUA**



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa



Etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria izan zuten aitortzenen % 60 inguru 30.000 eurorainoko zerga-oinarridun aitortzaileei zegokien. Aitorpen horiek eskuratu zuten inbertsioagatik aplikatutako kenkariak sortutako zerga-gastuaren erdia baino gehixeago (159,8 milioi); alokairuagatikoek, berriz, % 74,5. Nolanahi dela ere, zenbaki absolututan askoz txikiagoa da zerga-gastua (76,5 milioi).

Erosketagatiko kenkariari dagokionez, handiagoak dira portzentajeak –aitortzenen % 92 eta zerga-gastuaren % 88,7 (277,8 milioi)–, 54.000 eurorainoko likidazio-oinarria duten aitortzenak kontuan hartuz gero. Azkenik, errenta altuenen inbertsioak (54.000 eurotik gorako 24.000 aitortzen) 35 milioi eurotik gorako zerga-gastua sortu zuten 2020an.

Kenkarien batez besteko zenbatekoei erreparatuta (kenkariaren zenbateko osoa / aitortzaile-kopurua), hau ondorioztatzen da: zenbat eta handiagoak diru-sarrerak, orduan eta handiagoa kenkarien batez besteko zenbatekoa etxebizitzagatiko kenkari guztietan. Inbertsioagatiko kenkariari dagokionez, berriz, 36.000 euroko zerga-kreditua dute aitortzaile guztiek, eta muga horretara iritsi arte metatu ditzakete kenkariak bizitzan zehar, baita ekitaldi jakin batean urteko gehieneko kenkarira heltzen ez badira ere. Oro har, hau izaten da urteko muga: 1.530 euro etxebizitza 2012az geroztik erosi dutenentzat, eta 1.600 euro alokatu dutenentzat. Ekitaldi bakoitzeko gehieneko kenkaria aplikatuta, 24 urte behar dira zerga-kreditu guztia gastatzeko; honenbestez, errenta-maila handieneko herritarrek epe laburragoan gasta dezakete zerga-kreditu hori.


Alokairuaren kasuan, aitortzaileak ez badauka ahalmenik aplikatutako kenkariak guztiz baliatzeko behar den kuota sortzeko, galdu egiten da sortutako kenkariaren eta egiazki aplikatutakoaren arteko diferentziala.

Kontuan izateko modukoa da, halaber, alokairuagatiko kenkariak gastu bat finantzatzen duela (errenta) eta erosketagatikoak ondare pribatu bat erostea (printzipalaren amortizazioa, interesen gastuari dagokion zati txikiagoa bat izan ezik).

**2020an,  
159,8 milioi  
eurokoa izan zen  
30.000 eurorainoko  
likidazio-oinarria  
zuten aitortzenen  
etxebizitza  
erosteagatiko  
zerga-gastua**

**Txikiagoa da  
kenkariaren batez  
besteko zenbatekoa  
diru-sarrera  
baxueneko  
aitortzaileen  
artean (gehiengoa  
alokairuagatiko  
kenkariari  
dagokionez)**

**6. grafikoa.** Aitorpen bakoitzeko kenkariaren batez besteko zenbatekoa, kenkari-motaren eta oinarri likidagarriaren zenbatekoaren arabera. 2020





### 3. Ondorioak

1. 2020an, 432 milioi eurokoa izan zen etxebizitzari dagozkion PFEZren zerga-pizgarri horiek Euskadin eragin zuten zerga-gastua, hots, zerga bidez Euskadin bildutako diru-sarreraren % 3,1, PFEZren bidez bildutako guztiaren % 7,6 eta 2020an Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan egindako gastu bateratua halako 1,1.
2. Duela zenbait urtetik hona, Euskadi da autonomia-erkidegoetatik bakarra eragiketa berrietarako erosteagatiko, birgaitzeagatiko eta alokatzeagatiko PFEZko kenkariak oro har mantentzen dituena.
3. Zerga-gastu handia (biltzen ez den zerga-dirua) eragiten du urtero egoera horrek (3.000 milioi euro inguru gainerako autonomia-erkidegoetan kenkaririk aplikatzen ez denetik) eta zuzenean eragiten die EAEko etxebizitzaren merkatura sartu nahi duen familietako pizgarri ekonomikoei.
4. Honenbestez, EBZren aspaldi honetako diru-politika hedakorra dela eta (interes-tasa erreal oso baxuak, baita negatiboak ere), **etxebizitza erosteko hipotekek ez dute ia batere finantza-eta zerga-kosturik**. Komeni da, bestalde, ongi bereiztea etxebizitza alokatzeagatik eta erosteagatik aplikatzen diren kenkarien arteko aldea. Alokairuan, soilik gastu bat finantzatzen da (alokairuko etxearen errenta); erosketan, berriz, hipoteka-kuota osoa finantzatzen da, hau da, finantza-gastua ez ezik (interesak) baita hipoteka-kredituko printzipalaren itzulketa edo amortizazioa ere. Beraz, baliabide publikoak erabiltzen dira -nolabait-dirulaguntzak emateko (zerga-gastuaren bidez), eta aitortzaile bakoitzari 36.000 euroraino finantzatzen zaio ondare pribatuaren erosketa.
5. Pandemiaren inpaktua gorabehera, poliki igo zen zerga-gastu osoa 2020an, batez ere alokairua ordaintzeagatiko zerga-gastuaren igoerak bultzatuta. Lehenbiziko aldiz, 100 milioi euroren langa gainditu zuen gastuak, 2020an; 2019an eta 2020an, berriz, hurrenez hurren % 6,2 eta % 4,9 izan ziren hazkunde-tasak, azken urteetako goranzko joerari jarraikiz.
6. Hipoteka bidez etxebizitza erosteagatiko kenkariari dagokion zerga-gastua, berriz, ez zen gutxitu ez 2019an ez 2020an: 300 milioi eurora heldu zen (312 milioi, 2020ko etxebizitza-kontuari dagokion zerga-gastua sartuta), eta zerga-gastu osoaren hamar eurotik zazpi jaten ditu oraindik ere.



7. Birgaitze-lanek sortzen duten zerga-gastua, berriz, oso txikia da etxebizitzaren erosketak eta alokairuak eragiten dutenarekin alderatuta: 17 milioi euro 2020an, zerga-gastu osoaren % 4. Bestalde, EAEko foru-ogasunetara ez dira iritsi oraindik birgaitze-lanetarako zerga-arintze berriak, Espainiako gobernuaren Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planekoak, zeinak obragatik ordaindutakoaren % 20 eta % 60 bitarteko zerga-arintzeak aurreikusten baititu (energia-eraginkortasunerako lan-mota zein den). Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan aplikagarriak dira jada zerga-arintze horiek, eta Nafarroak ere bereganatu ditu. europako funtsen Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak (BEM) ordaintzen du zerga-arintze horien kostua.
8. Zergadunen PFEZren likidazio-oinarriaren arabera zerga-gastuaren banaketak hau adierazten du, beste behin ere, 2019an eta 2020an: zerga-gastu hori ez datorrela bat, Euskadin, progresibitate fiskalaren printzipioarekin. Etxebizitza erosteagatiko kenkariaren onura likidazio-oinarri ertaina edo handia duten herritarrek berenganatzen dute gehienbat; alokairuagatiko kenkaria, berriz, ohikoagoa da likidazio-oinarri txikiagoa duten pertsonen eta familien artean. Bestalde, nabarmena da etxebizitzaren merkaturako sarbide-motaren arabera diskriminazioa, askoz ere laguntza handiagoa jasotzen baitu erosketak alokairuak baino.
9. Testuinguru horretan, zerga-pizgarri horiek berrikusi egin behar direla diote bai 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planak bai Eusko Jaurlaritzaren 2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen alokairu babestuen eta birgaitzearen aldeko politikarekin uztartu; halaber, etxebizitzaren merkatura sartzeko neutraltasuna, berdintasuna eta progresibitatea bermatu behar direla diote, eta protagonismo kuantitatibo handiagoa eman behar zaiola etxebizitzako zuzeneko gastuari, zerga-gastuaren gainetik.
10. Baliabideak urriak izango direnez hurrengo aurrekontuetan, ez da oso koherentea Euskadiko etxebizitzarako zerga-pizgarriek –Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetakoek ez bezala– hipoteka-kredituen printzipala amortizatzeari ematea lehentasuna (300 milioi euro baino gehiago urtean), behar handiena duten taldeei eta haien premiei erreparatu beharrean, hau da, alokairuari eta birgaitze-lanei.
11. Gogora dezagun, azkenik, 2019an Eusko Jaurlaritzak prestatu zuen zerga-politikaren<sup>3</sup> orientabide berri baterako proposamena, zeinak aldaketa bat proposatzen baitzuen zerga-pizgarriak orekatzeko, laguntza handiagoak emateko diru-sarrera txikieneko maizterrei eta erosteagatiko egungo kenkaria moduluka aplikatzeko eragiketa berrietan, betiere zailtasun sozial eta ekonomiko handienak jasaten dituzten taldeetara bideratzeko zerga-pizgarriak eta epe luzera haien zerga-kostua murrizteko.

<sup>3</sup> <https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovad150x/eu/>

